

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ESKUERNAGAKO UDALA

Udalerriko hainbat kaleren izenak aldatzeko proposamena jendaurrean jartzea

Eskuernagako alkateak, 2026ko irailaren 17an, dekretua eman zuen, eta honako hau ebatzi zuen:

LEHENENGOA. Alkatetza honen ekimenez, espedienteari hasiera ematea, justifikazio-memorian identifikatutako eta espedienteari erantsitako kartografia-eranskinean mugatutako bide publikoen izenak onartu eta ofizializatzeko.

BIGARRENA. Espedienteari prestaketa-dokumentazio gisa eranstea justifikazio-memoria eta kartografia-eranskina, eragindako trazadurak identifikatzeko eta izapidetzen diren izenak arrazoitzeko balio dutenak, fase honetan behin betiko izaerarik eman gabe.

HIRUGARRENA. Espedientea hogeita hamar egunez jendaurrean jartzea, ALHAOn iragarkia argitaratuz eta, osagarri gisa, udalaren iragarki-taulan edo egoitza elektronikokan, aztertu ahal izan dadin eta egokitzat jotzen diren alegazioak edo oharak aurkeztu ahal izan daitezen. (...).

Kaleen izenak aldatzeko proposamena udalaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan kontsulta daiteke, honako esteka honetan:

<https://udalenegoitza.araba.eus/villabuena/web/tablonEdictos.do?opcion=0&entidad=VI-LLABUENA&idioma=1>.

Guztiekin jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Eskuernagan, 2026ko irailaren 17an

Alkatea

IÑAKI PÉREZ BERRUECO